



GEU elkarte
2017-2019 Plan Estrategikoa

2017-2019 Plan Estrategikoa

GEU elkarte

1. AURKEZPENA

a. Azken urteotako ibilbidea, labur azalduta

2. METODOLOGIA

3. ARDATZ ESTRATEGIKOAK

a. IZAN

- I. BARNE KOMUNITATEA
- II. GERTUKO KOMUNITATEA
- III. KOMUNITATE ZABALDUA
- IV. METAKOMUNITATEA

b. EGIN

- I. AISIALDIA
- II. KULTURA
- III. FORMAZIOA
- IV. HEDABIDEAK
- V. AKTIBAZIOA
- VI.

c. ERAGIN

- I. EUSKALDUNAK eta EUSKALZALEAK
- II. EUSKALGINTZA
- III. ERAKUNDEAK

d. ZEHARLERROAK

- I. KOMUNIKAZIOA
- II. ADMINISTRAZIO
- III. FINANTZIAZIOA

1. AURKEZPENA

GEU elkarteak lehen Plan Estrategikoa diseinatu zuen 2013-2015 urteetan zehar jorratuko ziren helburuak, lan ildoak eta neurgailuak zehaztuz. 2016 urteko udazkenean, elkartearen 25. urteurrenaren atarian, *'Zeu zara GEU: Gasteizko euskararen komunitatea'* gogoeta prozesua jarri zen abian, eta ostean, arestian aipatu Plan Estrategikoaren ebaluazioa eta hurrengo urteetarako dokumentu berria lantzen hasi zen GEU elkarteko Talde Dinamizatzailea.

Eskuartean duzun dokumentuak GEU Gasteiz Euskalduna elkartearen etorkizun hurbila zehaztuko duen gidaliburua nahi du izan.

15-17 Plan Estrategiko hiru ardatz nagusitan banatu da:

- Izan > komunitatea, artikulazioa, aktibazioa, komunikazioa
- Egin > egitasmoak garatu eta kudeatu
- Eragin > Gasteizko euskaldunon erreferente bilakatu

a. Azken urteotako ibilbidea, labur azalduta

2010 urteaz geroztik GEU elkarteak berregituraketa sakona bizi izan zuen. GEU aldizkaria desagertu ostean, bazkide aktiboen laguntzaz elkarteko lantaldeak hainbat dinamika abian jarri zituen orduko egitasmoei jarraipena eman eta berriak sortu aldera. Hurrengo hiru urteetan Gasteizko euskaldunentzat erreferente izan nahi zuen komunikazio egitasmo berria abian jartzeko lanean aritu zen elkarteak. Era berean, elkartearen barne egitura zehaztea eta funtzionamendua hobetzea izan ziren erronka nagusiak.

2012. urtean *hirinet.net* atariak bere ibilbidea hasi zuen. Aurreikusitako egitasmo komunikatibo osoaren lehengo pausua izan zen. GEU elkarteak hedabideen esparruan bere lekua berreskuratu zuen. Lan taldea eta kolaboratzaile sare egonkorra osatu ziren eta elkarlanerako bide berriak ireki ziren. Hala nola, Hirinet.FM izeneko irratsaioa, Radio Vitoria irratiarekin elkarlanean egiten den irratsaioa.

Urtebete eta erdi beranduago hedabideen arloan aspalditik ezarritako asmo nagusia gauzatu zen. Euskara hutsezko paperezko aldizkaria, ALEA, Araba mailako astekaria jaio zen. GEU elkartearen ekimenez eta Goiena Taldea eta Berria egunkariarekin batera ALEA.sl enpresa abian jarri eta 5 laguneko lantaldea osatu zen, astekaria ostiralero kalean egotea helburu.

2014. urtean *'Atzo, gaur eta biharko Gasteiz euskalduna'* ibilbide gidatuen lehenengo saioak eskaini ziren, Gasteizko Udalaren babesarekin. Gasteizko euskararen historia sozialari buruzko ibilbide gidatu hauek GEU elkartearen eskaintza osatzen dute gaur egun ere. Zerbitzuen alorrean, *'Zergatik ez?'* motibazio tailerrak eskaintzeari ekin zitzaion ere.

Aisialdia izan da azken urteotan GEU elkarteak jorratu duen alor berria. IGANDEAK JAI egitasmoa izan zen lehenengo urratsa. Geroztik, hezitzaileen formazioa emateko Gasteizko Udalarekin zein Arabako Foru Aldundiarekin elkarlana garatu da eta familia transmisioa lantzeko bestelako ekintzak antolatu dira.

Era berean, estreinakoz elkarteko langileen lan baldintzak zehazten dituen lan akordioa sinatu da. Lantaldea proiektu berriak garatu ahala handitzen joan da eta egun 6 langilek osatzen dute. Hala ere, azken urtean egondako aldaketek (arduraldi partzialeko behin-behineko ordezkapen kontratuen proportzio handia, halabeharrezko gertaera batzuen ondorioz) proiektuaren egonkortasuna kaltetu eta erronka berriei aurre egiteko ahalmena baldintzatu dute.

Urte hauetan guztietan barne zein kanpo komunikazioari arreta berezia jarri zaio GEU elkartearen. Horrela, 2015 urtearen amaieran GEU elkartearen Komunikazio Plana aurkeztu zen. Elkartearen organo desberdinen funtzioak zehaztea eta haien arteko harremana adostez gain, lantaldearen zein elkartearen kudeaketa orokorra hobetzeko erabaki garrantzitsuak hartu dira.

Azkenik, ezin dira aipatu gabe utzi aldaketa askorik gabe baina osasuntsu dabiltzan GEU elkarteak kudeatzen dituen beste proiektu batzuk. Hala, Gasteizko Mintzalaguna nola Euskararen Agenda. Bide

beretik, euskarazko kultur eskaintza aberasteko helburuz hilean behin Parral tabernan kontzertua eta bi hilean behin Begi Belarri ikus-entzunezko zikloaren baitako dokumentala eta solasaldia antolatzen dira. Gasteizko Jaietan Aihotz plazan kudeatzen den txosnak, urtez urte, jende gehiago biltzea lortu du. Gasteizko Irakurle Klubak eta Geurekin Mendirak ere urte askotako bidean jarraitu dute.

2. METODOLOGIA

GEU elkartearen Plan Estrategiko berria egiteko hiru txosten izan dira oinarri: 13-15 garaiko Plan Estrategikoaren balorazio txostena, Komunikazio Plana eta Gogoeta Prozesuaren ondorioak.

Talde dinamizatzaileko bi kidek eta lantaldearen koordinatzaileak zirriborro bat egin eta TDko kideei zein langileei aurkeztu zaie eta proposamen berriak edota aldaketak jaso dira.

Hiru arlo nagusitan banatzen da Plan Estrategikoa: izan, egin eta eragin. Esparru bakoitzean arlo eta lan ildo nagusi batzuk zehaztu dira, eta ostean, egungo egoera zein den eta hemendik hiru urteetara non egon nahiko genukeen jasotzen da. Helburuak zenbateraino lortzen diren jakiteko adierazleak zehaztea ezinbestekoa da, eta horretan esfortzu berezia egin da.

Hiru urtetarako gidalerroak zehazten ditu Plan Estrategikoak. Hala ere, urtez urteko behin behineko plangintza bat ere aurreikusi da, helburuen betetze maila eta zehaztutako adierazleekin jarraipena eta balorazioa egin ahal izateko.

Hauek dira arloz arlo zehaztu diren lan-ildoak, helburuak eta adierazleak.

3. ARDATZ ESTRATEGIKOAK

a. IZAN

Gogoeta prozesuan eta Komunikazio Planean barne komunitatea sendotzearen ideia azpimarratu da. Handitzeaz gain komunitate izaera hori indartzeko beharra aipatu da. GEU elkartearekin harremana duten lagune arteko lotura sendotzea edo kideen arteko elkarrekintza areagotzea dira gehien errepikatzen diren ideiak komunitate aktiboa eta artikulatua lortze aldera. Horretarako, taldeen arteko komunikazioa eraginkorra izan behar da. Eta komunikazioa eraginkorra izateko lan taldeen edota batzordeen arteko koordinazioa antolatu eta planifikatu behar da ezinbestean. Ekintza hauek denak GEU elkarte osatzen duten lagunon kide izaera hori transmititzera eta indartzera lagunduko dute.

I. BARNE KOMUNITATEA

Barne komunitatea osatzen duten kideen konpromisoa eta harremana estua izan ohi da. Hala ere, bazkide ez aktiboekin du GEU elkarteak arazo gehien. Datu basea eguneratzeko ezintasunak asko zailtzen du bazkideekin komunikazioa eraginkorra izatea. Barne komunitatea osatzen duten beste taldeen arteko sareak eta loturak sendotzea, aldiz, errazagoa suerta daiteke.

Bestetik, lan taldearen egoera asko aldatu da azken hiru urteetan. Proiektu berriak sortu ahala (Zergatik ez? Ibilbide gidatuak, ALEA...) GEUren egoera ekonomikoak langile berriak kontratatzea ahalbidetu du. Baina, hainbat langilek arrazoi desberdinak direla medio eszedentzia eskatu dute (gaur egun 3 langile daude eszedentzian) eta egoera horrek lantaldean eragina izan du. Langile berriek denbora behar dute ardura berriekin moldatzeko eta egitekoen traspaso egokia egiteko aukera gutxi egon da. Horrela, garai batzuetan lan karga eta metatutako ordu extra kopurua handia izan da.

Bestetik, GEU elkartean estreinakoz 'Langileen lan harremanak arautzen dituen hitzarmena' sinatu zen 2015eko urriaren 1ean orduko lantaldea eta Zuzendaritza Batzordearen artean.

	LAN ILDOA	EGUNGO EGOERA	HELBURUA	ADIERAZLEA
TALDE DINAMIZATZAILEA	Taldea egonkortu eta handitu	6 lagunek osatzen dute	Kide kopurua handitu	8 kide
	GEUko komunitatearen beste taldeekin lotura estuagoa izatea	Talde dinamizatzaileko kide gehienek beste azpibatzerde batzuetan hartzen dute parte. Baina ez da bestelako elkarezagutzarik sustatu.	Bileren maiztasuna mantendu Kideen arteko harremana estuagoa izatea, talde izaera indartsua	hilean behin Balorazio galdetegia zuzendaritzako kideentzat
	Lantaldearekin koordinazioa	Lantaldeko koordinatzaileak dinamizatzen ditu ZBko bilerak, baina lantaldearekin ez da bestelako harremanik ematen (ekintza zehatzetan ez bada)	Elkarezagutza eta helburu estrategikoak eta praktikoak bateratzea	Bi bilera urtean
LANGILEAK	Lantaldearen koordinazioa hobetzea	Koordinaziorako hainbat tresna eta dinamika abian jarri dira aurretik (dropbox, ebaluazio sistema, egutegi bateratua...)	Barne antolaketa zehatzagoa eta talde izaera indartsua	Barne antolaketarako protokoloak zehaztea
	Lankideen arteko elkarlana sustatzea, talde izaera indartzea	GEUko lantaldean giro ona, talde izaera	Talde izaera indartzea	Gutxienez bi ekintza
	Langileen asebetetze maila	Lan baldintzak hobetzeko proposamena	Lan baldintzak hobeak izatea	Soldata igotzea edo lanaldi murriztu
		18 orduko formazioa urtero	Etengabeko formakuntza	> 30 ordu urtean
Lan taldea egonkortu	3 langile lanaldi osoan, 3 langile lanaldi erdian, 3 langile eszedentzian	Lan talde egonkorra	6 lagun, lanaldi osoan	
	Azken lau urteetan etekinekin amaitu du urtea GEU elkarteak	Baliabide ekonomikoak bermatuta egotea	Balantze ekonomiko orekatua	

ALEAKO LANGILEAK	GEU elkartearen parte	Batzuk badira bazkide beste batzuk ez	GEUkide izaera sustatu	Langile guztiak GEUko bazkide izatea
	ALEAn GEU elkartearen presentzia	GEU elkarteak badu presentzia	ALEAn GEU elkartearen presentzia bermatzea eta sustatzea	Gutxienez urtean 4 agerpen egitasmo zehatzei lotu gabeak
	ALEA eta GEUren arteko lotura	Barnera begira harreman estua, kanpora begira ez hain argia	ALEA GEUren egitasmoa dela islatu	urtero ekintza berezi bat
AZPIBATZORDEA	Arlo bakoitzean azpibatzerde bat aritzea	Kultura azpibatzerdea, AleaFM azpibatzerdea eta GEUrekin mendira taldea daude	Arlo bakoitzak bere batzerdea funtzionamenduan izatea, bakoitzak bere egitasmo eta tempusekin	Bilera kopurua / kide kopurua
		Azpibatzerdeek ez dute egutegi eta eginkizun zehatzik		
		talde bakoitzak modu batean egiten du		
Azpibatzerde desberdineko kideen arteko elkarezagutza sustatu	Ez da elkarezagutza hori sustatzeko ekintza berezirik egin, baina askok ezagutzen dute elkar	Batzerdeen arteko elkarezagutza bermatzea	Topaketa bat antolatzea urtero	
BAZKIDEAK	Bazkideen datu basea eguneratzea	Egungo bazkideen %54 helbide elektronikoa dugu. 440 bazkide baztertu genituen datu faltagatik.	Bazkideen datu-base eguneratuta izatea	% 75 helbide elektronikoa
				% 50 telefonoa
				% 30 NAN zenbakia
				% 30 jaiotze data
	Bazkideekin komunikazioa eraginkorragoa	Helbide elektronikoa eman digutenek hileru buletina elektronikoa jasotzen dute (400 inguru) Urtean behin gutuna bidaltzen zaie beste 360 bazkideei (Batzar Orokorrerako deialdia) Sare-sozialak (Facebook, Twitter) erabiltzen dira informazioa zabaltzeko (ez bakarrik bazkideei)	Bazkideekiko harremanak erraztu ahal dituzten kanalak identifikatzea eta baliatzea. On-line bidezko informazio sustatzea Sare-sozialetan bazkideekin hartu emana izatea	% 30 zertan parte hartzen duen ezagutu
				Watzap / sms bidezko komunikazioa
				Gutunik ez bidaltzea Hartu emana izateko gonbidapena bidali
	Bazkide kopurua handitzea	760 bazkide ditu elkarteak	Bazkide kopurua handiagoa izatea	800 bazkide
	Bazkideen artean gazteen % handitzea	Bazkideen adinaren inguruko datu zehatzik ez (baina helduak dira gehienak)	Urtero bazkideetza kanpaina bat egitea	Urtero bazkideetza kanpaina bat egitea
	Bazkideen parte hartzea sustatzea	Batzar Nagusian bazkideen % 3,4 hartu du parte	Batzar Nagusian bazkideen % X parte hartzea	Bazkideen %5 parte hartzeaz
760 bazkide horietatik % 15/20 aktiboa dela uste da		Bazkide aktiboen % igotzea	Bazkideen % 30 aktiboak izatea (ekimen batean parte hartzea)	
Kultura batzerdean (5 lagun), AleaFM lantaldean (16 lagun), GEUrekin mendira taldean (8 lagun)		Batzerdeetan parte hartze eta inplikazio handiagoak	Batzerdeetan parte hartzea % 10 igotzea	

II. GERTUKO KOMUNITATEA

GEU elkarteak antolatzen dituen ekintzetan parte hartu ohi dute gertuko komunitateko kideek baina ez dira elkarteko bazkide. Gertuko komunitateko kide batzuk barne komunitatera pasatzea da helburua eta horretarako hainbat estratategia zehaztu dira. Egitasmo desberdinen inguruan elkartzen diren lagun hauen arteko zubiak edota elkar ezagutzarako aukerak sortzea litzateke esparru honetan helburuetako bat. GEU elkartearen izaera eta funtzionamendua ezagutzeko aukera ematea eta beste talde edota ekintzetan parte hartzera gonbidatzea litzateke lehenengo pausua.

	LAN ILDOA	EGUNGO EGOERA	HELBURUA	ADIERAZLEA
MINTZALAGUNAK (aktiboak)	Mintzalagunak GEU elkartearen komunitateko kide bihurtu. GEUkide izaera sustatzea.	Mintzalagunen artean (batez ere mintzalaguntzaile) asko dira GEUko bazkideak, kopurua zehatza ezin ezagutu	Mintzalagunek GEU elkartearen ezagutzea	Zehaztu zenbat diren GEUko bazkide
		Mintzalagun taldeak osatzeko lehengo bileran GEU elkartearen berri ematen zaie	Mintzalagunengan izena ematen dutenak GEU elkarteko bazkide ere egitea	Izena ematen dutenen %20 bazkide egitea
	Mintzalaguntzaileak	Azken urteetan bi topaketa egi dira mintzalaguntzaileekin	Estrategia, tresnak, aholkuak eskaini mintzalagunek ekintzetan parte hartzea sustatze aldera	Mintzalaguntzaileekin topaketa / formaziorako aukera
IRAKURLE KLUBA	GEUkide izaera sustatu	Gehienak GEU elkarteko bazkideak dira, baina datu zehatzik ez	Parte hartzaileak GEUko bazkide bihurtu	Parte hartzen dutenen % 50 GEUko bazkide egitea
	Egitasmoak elkarelikatzea > ALEAekin harremana sustatu	Batzuk ALEAko kolaboratzaileak dira	GEU elkarteko egitasmoak elkarelikatzea	Ikasturteko liburu erdian kritikak agertzea ALEAn
GEUrekin MENDIRA	GEUkide izaera sustatu	Ez dakigu GEUko bazkideak diren	Mendi irteeretara joaten direnak GEU elkarteko bazkide egitea	Erregularitasunez parte hartzen dutenen % 50 GEUko bazkide egitea
	Parte hartzaileekin komunikazioa	Hileroko irteerarekin mezua bidaltzen da Watxap bidezko komunikazioa atzertzen	Komunikazioa eraginkorragoa izatea eta maiztasuna finkoa izatea	emailaz mezua hilero watxap mezua hilero
TXOSNERO AK	GEUkide izaera	Batzuk bazkide dira, asko mintzalagunetik datoz...	Txosnan parte hartzen dutenak GEUko bazkide egitea	Parte hartzen dutenen %30 bazkide egitea (oparitutakoa mantendu)
	Lana eskertu	Zapia eta txapa oparitzen zaie; 2015ean urtebeteko bazkidetza oparitu zitzaion		
ALEA kolaboratzaileak	Kolaboratzaile sarea osatzen duten kideen arteko ezagutza sustatzea	Ez dakigu elkar ezagutzen duten	Kolaboratzaileen artean harremana egotea, elkar ezagutzea	
			On-line komunitatea sortzea	Twitter zerrenda publikoa
	Kolaboratzaile sarearen koordinazioa		Koordinazioa hobetu	
	Kolaboratzaile sarea handitzea	40 kolaboratzaile inguru (ALEA eta AleaFM)	Kolaboratzaile gehiago izatea	% 10 kolaboratzaile gehiago
GEUkide izaera sustatzea	Ez dakigu GEUko kideak diren	Kolaboratzaileak GEU elkarteko bazkide egitea	Kolaboratzaileen %50 GEUkide izatea	

III. KOMUNITATE ZABALDUA

Geruza honetan kokatzen diren lagun taldeen arteko loturak arinak izan ohi dira, hau da, ekintza edota egitasmo konkretuetan atxikimendua adierazten badute ere, ez dira komunitate baten kide sentitzen. Kasu honetan GEU elkartearen existentziaz jabetzea eta antolatzen dituen ekimenen berri izatea da helburu nagusia. Horrela, parte hartzen duten egitasmo horretatik harago GEU elkartearen ezagutza eta behar bada beste ekintzaren batean parte hartzen has daitezke. Gasteizen euskaraz bizitzeko edota gehiago egiteko dauden aukeren berri ematea litzateke lehenengo urratsa; gainera, haiek ere GEUren mezuen zabaltzeko bozgorailu lana egin dezakete euskararen mundutik urrun dauden esparruetan.

	LAN ILDOA	EGUNGO EGOERA	HELBURUA	ADIERAZLEA
Mintzalagun ez aktiboak	Harreman sarea lantzea eta GEU elkartearen ezagutza bermatzea	Emailer eta watxap bidezko komunikazioa, maiztasun zehatza eta hartu emana	Gasteizen euskaraz bizitzeko dauden aukeraz jabetzea eta egitasmoetan parte hartze aktiboa sustatzea	Matrikulazio kanpainan harrera mezua bidaltzea
Igandeak jai eta familia irteeretakoko partaideak	Harreman sarea lantzea eta GEU elkartearen ezagutza bermatzea	Batzuei informazioa emailer bidaltzen zaie hilean behin	Gasteizen euskaraz bizitzeko dauden aukeraz jabetzea eta egitasmoetan parte hartze aktiboa sustatzea	Datu basea osatzea
ALEA harpidedunak	Harreman sarea lantzea eta GEU elkartearen ezagutza bermatzea	Asteroko aldizkaria jasotzen dute, tarteko email bidezko mezua	Gasteizen euskaraz bizitzeko dauden aukeraz jabetzea eta egitasmoetan parte hartze aktiboa sustatzea	GEU elkartearen inguruko informazioa ematea Watxap bidez informazio jasotzeko aukera eskaini

IV. METAKOMUNITATEA

Komunitate honetako kideek informazioa jasotzea dute helburua, besterik ez. Baina ezagutzatik parte hartzera salto eman dezakete eta horretarako aukera egokiak sortzea litzateke GEU elkartearen ardura.

	LAN ILDOA	EGUNGO EGOERA	HELBURUA	ADIERAZLEA
Euskararen Agenda jasotzen dutenak	Ezagutza eta hedapena	3770 lagunek jasotzen dute astero	Ezagutzatik parte hartzera salto ematea eta mezua hedatzen laguntza (bozgorailu bihurtzea) / kopurua handitu	Bide honetatik 40 bazkide berri lortzea
Formazioa jasotzen dutenak (Hezitzaileak, Zergatik ez...)	Ezagutza eta hedapena	300 lagunetik gora		Bide honetatik 10 bazkide berri lortzea
Kantarin parte hartu dutenak	Ezagutza eta hedapena	200 haur inguru ikuskizunean		Bide honetatik 8 bazkide berri lortzea

b. EGIN

GEU elkarteak antolatzen dituen egitasmoen kudeaketaz arituko gara atal honetan.

I. AISIALDIA

Aisialdiaren arloan oso bestelako egitasmoak kokatzen dira. Orokorrean parte hartzea handitzea, komunikazioan eta koordinazioan hobetzen jarraitzea eta egiten diren ekintzen balorazio jarraitua egitea dira hurrengo urteetarako helburuak.

	LAN ILDOA	EGUNGO EGOERA	HELBURUA	ADIERAZLEA
Mintzalaguna	Mintzalagun kopurua	684 mintzalagun / 84 talde	Mintzalagun kopurua egonkortu edo handitu	700 mintzalagun
	Taldekatze prozesua	1,5 / 2 hilabete kostatzen zaigu	Taldekatze prozesua azkartu	Hilabete batean egitea
	Komunikazio eraginkorra	Hamabostean behin buletina emailez eta watxap bidez	Komunikazioan etengabeko hobekuntza	Hartu eman jarraia
		Urtean talde bakoitzarekin gutxienez bi bilera		
		Izen-ematea on-line		
		Komunikazio kanpaina hedatu	Komunikazio kanpaina garatu, eragin eremua handitu	Esparru berri batean egin saiakera
	Mintzalagun Tabernak	16 mintzalagun taberna; gehienak Gasteizko erdigunean	Mintzalagun Tabernen sarea hedatzea eta proiektua garatzea	Auzo berrietan taberna bana
	Jarraipen Batzordea	Urtean bitan biltzen da; parte hartzaile batzuekin oso harreman txikia	Jarraipen Batzordea eguneratzea	Parte hartzaileei konpromiso eta eginkizun zehatzak
		Euskalgintza eta hezkuntza dira esparru naturalak	Elkarlan esparru berriak bilatzea	Elkarlanerako proposamenak egin
	Ekintza osagarriak	Ahal dela beste eragile batzuekin elkarlanean antolatzen ditugu ekintzak (bisita gidatuak esaterako)	Elkarlan esparru berriak bilatzea	Ekintza osagarri berriak egitea
2016 urtean 21 ekintza antolatu dira, orotara 466 lagunek hartu dute parte		Ekintza arrakastatsuek egiten jarraitu	Saio gastronomikoa, mintza txotx...	
		Parte hartze handiko ekintza bat antolatu urtean	100 lagunetik gora	
Egitasmoaren balorazioa	Parte hartzaileei urtero balorazio galdetegia bidaltzen zaie, % 30etik gora betetzen du	Etengabeko hobekuntza eta kalitatea neurtzeko dinamika ezartzea	Galdetegia % 40 betetzea	
GEUrekin mendira	Parte hartzaile kopurua	10/15 lagun inguru irteera bakoitzean	Mendi irteeretan parte hartzea handitu	20 lagun batz bestea
	Barne Komunikazioa landu	Datu basean 120 email inguru eta telefono batzuk	Komunikazioa eraginkorragoa izatea	Datu basea osatu
		Email bidalketa bulegotik egiten da, hilero mendi irteeraren berri emanez	Komunikazioa eraginkorragoa izatea	Email bidalketa maiztasun finkoarekin
		Argazkien kudeketa. Argazki zaharrenak Picasan daude, baina Picasa ez dabil gehiago eta gaur egun ez dago non argitaratu.	Irteeretako argazkiak barne eta kanpo komunikazio gisa baliatzea	Irteera bakoitzeko gutxienez bi argazki argitaratu hartarako paraturiko webgunean
	Kanpo komunikazioa landu	Sare sozialetan irteeren berri ematen da	GEUrekin mendira taldea ezagutzera eman	Hedabideetan presentzia izatea
Egitasmoaren balorazioa	Antolatzaileei 2015ean galdetegia pasa zitzaien	Etengabeko hobekuntza eta kalitatea neurtzeko dinamika ezartzea	Balorazio galdetegia bidaltzea	
-	Saioaen	2016an hilean behin antolatu dira, jende gutxi	Egitasmoaren egokitasuna	Parte hartzaile kopuru egokia

	maiztasuna eta nolakotasuna zehazta	Ez da parte hartzaileekin baloraziorik egin	neurtzea	Parte hartzaileek balorazio egitea	
IGANDEAK JAI	Saioen antolaketa eta koordinazioa	10 saio urtean, horietako bat berezia (Gasteizko Jaietan...)	GEU elkartearen baitan familia aisialdian garatu nahi den proiektuan parte hartzeko gonbidapena luzatu.	Protokoloak osatzea	
	Saioetan parte hartzea	Bataz beste 100 pertsona saioko	Ikuskizuna, lekua eta parte hartzaile kopurua egokitu	Parte hartze ikusizun eta lekuaren arabera izatea	
	Ikuskizunak	Kultura errotatik (Topagunetik) hartzen dira gehienak	Autonomoak izatea ikuskizunak topatzeko	%50 zuzeneko kontratazioa	
	Komunikazioa	Parte hartzaileen datu basea eguneratu gabe dago	Igandek Jai egitasmoaren inguruan bidaltzen den informazioa maiztasuna finkatu		Hilero email eta watxap mezua
		Eskolekin komunikazioa koordinatzen da	Parte hartzaile eta eskolekin komunikazio eraginkorragoa		Komunikazio prokolo erabilgarria egin
	Egitasmoaren balorazioa	2015ean saio batean balorazio egin zen	Etengabeko hobekuntza eta kalitatea neurtzeko dinamika ezartzea		Balorazio galdetegia bidaltzea
Antolatzaileekin balorazioa egiten da		Etengabeko hobekuntza eta kalitatea neurtzeko dinamika ezartzea		Antolatzaile guztiek balorazio egitea	
Txosna	Euskararen presentzia Gasteizko Jaietan	Aihotz plazako giroa euskalduntzen lagundu du txosnak	gasteizko jaien antolaketan zer esana izatea	jaien egitarauan %30 ekitaldi euskaraz egotea	
		Gasteizko Euskalgintzak Gasteizen euskaraz bizi dekalogoak aurkeztu du 2016an	Gasteizko jaiak euskalduntzen laguntzea	Erakundeei konpromisoak eskatu	
		Kultur programazioa	Aihotz plazako Udalaren egitarauaren gainean eskumena izatea	Eskumena izan ala ez	
		Elkarlana / finantziarioa	2016an lortu genuen finantziarioa	Ekintza zehatz baterako finantziarioa lortzea	
	Zeledon kantaren euskarazko bertsioa	2015ean euskaratu zen eta ordutik euskaraz ere abesten da. ETS taldeak promo bideo laburra egin zuen	Zeledon kantaren euskarazko bertsioa sustatu	Urtero kanta abesten jarraitzea	
	Gasteizko Jaietako eragile bihurtzea	Udalak ez du GEU eragile bezala hartzen	Gasteizko Jaietako eragile bihurtzea nahi dugun edo ez eztabaidatu	Eztabaidatu	
	Txosnaren kudeaketa	Nesken eta Blusen komisiorekin hitzarmena du GEUk txosna kudeatzeko 14.000€ren truke	Txosnaren kudeaketa zuzena lortzeko aukerak tanteatu		Aukera desberdinak neurtu
Etekinak urtero %10 inguru igo dira		Etekin ekonomikoak handitzea		Urtero % 5 igoera	

II. KULTURA

Kultura esparruan orain 20 urte sortutako egitasmoak aurtun abian jarritakoekin batera daude. Batzuk GEU elkartearen baitan daude baina funtzionamendu autonomoa dute, hala nola, GEUekin mendira edota Irakurle Kluba. Bi egitasmo hauetan komunikazioa hobetzea izango da hurrengo urteko erronka. Egitasmo berrietan, aldiz, 'Kantari edota 'Irakurri, gozatu, oparitu' kasu, proiektua bera egonkortzea izango da helburua, antolaketan eta koordinazioan hobetzeaz gain, finantziario iturri berriak bilatzea ere lehentasuna izan beharko da.

	LAN ILDOA	EGUNGO EGOERA	HELBURUA	ADIERAZLEA
Irakurle kluba	Parte hartzaile kopurua	Batazbesteko 12 lagun bilera bakoitzean	Parte hartzaile kopurua handitu	Batazbesteko 20
	Idazleen parte hartzea	Urtero 5 idazle inguru hurbiltzen da saioetara	Idazle eta itzultzaileen parte hartzea handitu	Urtero 7 idazle hurbiltzea
	Liburutegi eta liburu dendeekin harremana	Zuloa liburu dendan %10 deskontua Irakurle klubeko liburuetan	Irakurle Klubeko liburuetan deskontuak lortzea	Deskontuak
	Egitasmoaren balorazioa	Ez da balorazio galdetegirik egin	Etengabeko hobekuntza eta kalitatea neurtzeko dinamika ezartzea	Balorazio galdetegia bidaltzea
Parral emanaldiak	Emanaldien helburua zalantzan	Hilero emanaldi bat antolatzen du GEU elkarteak Parral tabernan (Parralek finantzatzen du, GEUk artisten afaria ordaintze du) 2016an 600 lagunetik gora.	GEU elkarteko Zuzendaritza Batzordeak ekintza honen balorazio egitea	
Atzo, gaur eta biharko Gasteiz Euskalduna' bisita gidatuak	ekintza baloratu, GEUren ardura izan behar da?	2016an 10 bisita gidatu egin dira, orotara 167 lagunek hartu du parte. Gasteizko Udalaren hezkuntza sailak eskaintzen dituen bisita gidatuetan sartzeko saiakera egin da	Gasteizko Udalaren hezkuntza saileko eskaintzan bisita gidatua sartzea	Hezkuntza saileko liburuxkan sartzan
	Bisiten balorazioa	Parte hartzaileei galdetegia pasa zitzaion	Udalaren turismo eskaintzan	Turismo bulegoan eskaintzea
Begi Belarri ikus-entzunezko zikloa	Saioen maiztasuna finkatu eta beste eragileekin elkarlanean antolatu	2016an 7 emanaldi antolatu dira, orotara 241 ikusle izan dira	Ikus-entzunezko emanaldiak antolatzen jarraitu beste eragileekin elkarlanean eta ikusle kopurua handitu	Saio bakoitzean gutxienez 30 lagun
Kantari	Egitasmoaren jarraipena	Kantari estreinaldia Gasteizen > 200 haur (+ familia)	Kantari egonkortu eta koordinazioa egokia izatea	Urtero hobeto antolatzea
Euskarak 365 egun	Egitasmoarekin jarraitzea eta balorazioa egitea	2016an 350 lagunek hartu dute parte	GEU elkarteak antolatzen jarraitzea beste eragile batzuekin elkarlanean	Antolatzen jarraitzea, parte hartzea sustatzea
Irakurri, gozatu eta oparitu	Egitasmoa Gasteizen egonkortzea	2017 estreinakoz Gasteizen jarriko da abian	GEU elkarteak kudeatzea egitasmoa Gasteizen	Egitasmo hau kudeatzea eta irakurzaletasuna sustatzea

III. FORMAZIOA

Azken bi urteetan GEU elkartean estreinakoz jorratu den arloa da formazioarena. Egun aisialdiaren arloan lan egiten duten hezitzaileekin euskararen erabilera sustatzeko formazioa saioak ematen dira Gasteizko Udalaren eta Arabako Foru Aldundiaren babesarekin. Alor honetan Gasteizen lan asko eta ibilbide luzea dago oraindik egiteko.

Gainera, euskararen erabilera soziala bultzatzeko "Zergatik ez?" tailerrak emateko aukera dute GEUko bi langilek. Hezitzaileen formazioan ez bezala, lantegi hau ematea ez da erraza izan (saioak antolatzeko arazoengatik), batez ere azken urtean. Formazio hau ematea egokia den ala ez baloratuko da hurrengo urteotan.

	LAN ILDOA	EGUNGO EGOERA	HELBURUA	ADIERAZLEA
Hezitzaileen formazioa	Begirale, hezitzaile, entrenatzaile, etab.-ei formazioa eskaintzea	90 saio urtean	hezitzaileen formazioan erreferentzia izatea, GEUK formatutako hezitzaileak izatea udalak eta aldundiak erabiliko dituen bakarrak (homologazioa)	Hezitzaileen formazioaren inguruko lehiaketak lortzea
Zergatik ez?	Saio eta parte hartzaile kopurua	16 saioa eman dira aurtan, 116 lagunek jaso dute formazioa	ebaluazioa egin, GEUrentzat garrantzitsua?	Erabakia hartu
	Saioen finantziakzioa	Gasteizko Udalak finantzatu ditu saio gehienak, baina kirol edota enpresa arloko eragileekin zaila egin zaigu saioak lotzea		

IV. HEDABIDEAK

Hedabideen arloa izan da GEU elkartearen lanaren ardatza azken hiru urteetan. Hirinet atariaren sorrera, ALEA aldizkariaren jaiotza eta ostean ALEA webgunearekin. Egun hiru hankako egitasmo komunikatiboa da ALEA (aldizkaria, Internet eta irratia). ALEA proiektu komunikatiboa GEUren eragin esparrutik hurbilago egotea da hurrengo urteetako helburua: GEU eta ALEAren arteko lotura ikusaraztea eta barne antolaketan elkarlana sustatzea.

	LAN ILDOA	EGUNGO EGOERA	HELBURUA	ADIERAZLEA
ALEA	ALEA eta GEU elkartearen arteko lotura ikusarazi	GEU elkarteko egitasmoak argitaratzen dituzte baina maiztasun finkorik gabe	ALEA egitasmo komunikatiboa GEU elkartearen baitan kokatuta dagoela islatzea	Astero GEU elkartearen atal propioa Gutxienez urtean 4 agerpen egitasmo zehatzei lotu gabeak
	ALEA eta GEU Elkartearen arteko lotura berrindartu > birplanteatu	GEU elkarte Alea.SL enpresaren jabe nagusia da eta Administrazio Kontseiluko kidea. Langileen arteko harremana ere estua da.	Lotura bera berrindartu > birplanteatu	Komunikazio Batzordea sortzea
	Jarraipena, kudeaketa eta administrazio organoak	GEUko koordinatzailea Administrazio Kontseiluan hartzen du parte	Administrazio Kontseiluan parte hartzea, elkarlana sustatu eta jarraipena egitea	Erabakiak hartzeko gaitasun handiago izatea
		2015ean Komunikazio Batzordearen lehenengo bilera ofiziala egin zen	Komunikazioa Batzordeak egitasmoaren jarraipena egitea	Komunikazio Batzordea sortzea
	Lan ardura eta proiektu batzuk elkarlanean egiten dira, trukean publizitatea egon ohi da.	GEU eta ALEA.sl enpresaren arteko harremana hitzarmen bidez zehaztuta egotea	Hitzarmena eguneratuta egotea	
Euskararen Agenda	Erreferentzialtasuna	Aitzindaria da Euskararen Agenda, baina azken bi urteetan emandako hobekuntzak ez dira behar bezala komunikatu	Arabian euskaraz egiten diren ekimenen berri ematea eta erreferentzia izatea programatzaile eta erabiltzaileentzat.	Aplikazioaren erabilera handitzea, deskarga kopurua Asteroko buletina jasotzen dutenen kopurua handitzea > 5000
	Kudeaketa	GEU elkarteko lantaldeak kudeatu du orain arte Euskararen Agenda	ALEA.sl enpresako lantaldeak kudeatzea Euskararen Agenda proiektua. GEU elkarteak kudeaketa horren jarraipena egitea. Kudeaketa eraginkorragoa egitea.	Agenda ohar kopurua handiagoa

V. AKTIBAZIOA

2012 urtean 'Nahi baduzu, euskaraz' kanpaina abian jarri zuen GEU elkarteak eta bi urte beranduago 'Euskaralagunak' proiektuaren hazia erein zen parte hartze handiko bilera batean. 'Euskaralagunak' egitasmoaren inguruko lantaldeak bi urteko bidea egin zuen, tarteka pausu bat aurrera eta bi atzera emanez, ezinean. 2015 urtean standby egoeran geratu zen. Euskaldunak aktibatzeke bi saiakera hauen ostean, Euskal Herrian azken bi urteotan ekimen desberdinak garatu dira esparru horretan. Gasteizen ere horrelako mugimendu bat sortzeko beharra ikusten bada ere, GEU elkarteak gidatzea egokiena litzatekeen hausnartzeke dago.

	LAN ILDOA	EGUNGO EGOERA	HELBURUA	ADIERAZLEA
Has Gasteizen...	Norbanakoen aktibazio ekimena	Gogoeta prozesuaren baitan lantalde batean landu zen ekimena	Bideragarritasuna neurtu eta proposamena egin	Proposamena egin eta baloratu
Euskaralagunak	Euskaldunen arteko sareak josteko ekimena	Stand by egoeran dago, bi urtez aurrera ateratzeko hileroko bilerak. Dinamikak indarra galdu zuen.	Proiektu hau beste baten hazia izan zela ikusarazi	Euskaralagunetik proiektu berrirako lagunak erakarri.

c. ERAGIN

Harremanak eta elkarlana sartzen dira Eragin esparruan. GEU elkarteak Gasteizko euskaldun eta euskaltzaleon, euskalgintzako eragile zein erakundeen erreferentzia bihurtzea da helburu nagusia. Horrelako helburuei adierazleak jartzea zaila bada ere, saiakera berezia egin da horretan.

I. EUSKALDUNAK eta EUSKALTZALEAK

Haurren eta familien esparruan eragiteko guraso elkarteak dira gaur egun GEU elkartearen aliatuak, eta harreman horretan sakontzea da asmoa. Esparru horretan lan handia dago egiteko eta guraso elkarteek asko eskertzen dute elkarlanerako aukera. Gazteen esparrua da GEUrentzat ezezagunena. Azken bost urteetan egindako saiakera gehienek ez dute arrakastarik izan. Hala ere, gazteak aktibatzeak erronka izaten jarraituko du elkartearen, bai eskoletako euskara batzordeen bitartez edota aisialdi taldea sortzeko aukera planteatuz.

	LAN ILDOA	EGUNGO EGOERA	HELBURUA	ADIERAZLEA
Haurrak eta familiak	Guraso elkarteak > elkarezagutza eta barne aktibazioa	8 eskolekin dago elkarlanerako hitzarmena sinatuta	Guraso elkartearen barne aktibazioa bultzatzea, lantegi eta hitzaldiak ematea, eta elkarlanerako hitzarmenak sinatzea.	10 eskolekin hitzarmena
Gazteak (16 - 24 urte)	Elkarezagutza eta talde izaera	50 laguneko topaketa urtarrilean (Topaguneak koordinatuta)	Topaketaren ostean mugimendua sortu	Gutxienez beste topaketa bat egitea
	Gazte euskaldunengana heltzea	ez dago estrategiarik zehaztuta	Gazteek GEUren dinamiketan parte hartzea	Gazteek erlazioari buruzko dokumentua edo txostena, estrategia zehazteko
Ikasleen Euskara Batzordeak	GEU ezagutarazi, formakuntza eskaini, elkarlanerako bideak adostu	Formazio saiakera eskaini zaizkie eta topaketa batzuk ere egin dira	Ikasleen Euskara Batzordeak sortzea sustatu eta elkarlanerako aukerak eskaini	Euskara Batzordeen diagnostikoa
Aisialdi taldea	Gasteizko aisialdi euskalduna	Gasteizko aisialdi euskaldun hutsuneak daude	Gasteizen dagoen aisialdi eskaintza, talde, enpresa eta ekimenetan eragitea	aisialdi taldearen sorrera sustatu > taldea sortu
		Ez dago euskara ardatz duen aisialdi eragile arabarrik	Hutsuneak betetzeko eskaintza, talde eta ekimen berriak sortzea	

II. EUSKALGINTZA

Zortzi eragile inguruk osatzen dute Gasteizko Euskalgintza. Orain artean bilerak maiztasun eta plangintza zehatz berezirik gabe egin dira, eta elkarlanean ekintzaren bat egin bada ere, koordinazio falta nabaria da. Talde horretan GEU elkartearen erreferente izatea eta dinamizazio lana garatu ahal izatea da asmoa.

	LAN ILDOA	EGUNGO EGOERA	HELBURUA	ADIERAZLEA
Gasteizko euskalgintza	GEUren erreferentzialtasuna eta aitzindaritza	8 bilera inguru urtean, iaz ekintza bateratu bat Gasteizko Jaietan. Dinamizazio falta nabaria.	Iritzi sortzailea, diskurtsoa: GEU bozeramalea, ahots kualifikatua, iritzi sortzaile sarea	Euskalgintzaren aktibazioan eragingo duen proiektu bateratu bat (zehatza) sustatzea
	Eragileen arteko koordinazioa		Gidaritza GEUren esku egotea. GEU-ri rola aitortzea.	
	Taldearen funtzioak eta eginkizuna	Ez dago oso zehaztuta	Harreman-sare honen jarduna proaktiboa izatea lortu	
	Taldea handitzea	Auzo batzuetan elkarte berriak sortu dira	GEUk auzoetako euskara elkarteak sortuko direla sustatu eta euskara elkarte hauek GEU-n integratu.	
Topagunea	Zuzendaritza Batzordean parte hartzea	Zuzendaritza Batzordean parte hartzen du GEU elkarteak	Topagunean eragitea, harreman sarea sendotzea, Euskal Herri mailako ezagupena izatea, etab.	Zuzendaritzan jarraitzea

III. ERAKUNDEAK

GEU elkarteak erakundeetako teknikariekin harreman konfiantzazko harreman estua du. Baina erakundeetako arduradun politikoekin eta alderdi politikoekin ez du harreman berezirik, edo ez behintzat aurrez planifikatutako bilerarik. Proiektu berriekin finantziario bila joatea izan ohi da aitzakia politikariekin harremanak izateko. Hurrengo urteotarako plangintzan bilera edota harreman horiek maiztasun finkoa izaten saiatzea aipatu da.

	LAN ILDOA	EGUNGO EGOERA	HELBURUA	ADIERAZLEA
Alderdi politikoak	Harremana eta erreferentzialtasuna	Arazoei erantzuteko sortu ohi da harremanak	Elkarlan eraginkorra eta lobby izaera sustatu	Alderdiekin politiko bakoitzarekin urtean gutxienez bilera bana
Eusko Jaurilaritza	Harremana Hizkuntza Politikara Sailburuordetza	Egoera zehaztuta soilik harremana	HPSen GEU elkartearen ezagutzea	Behintzat bilera bat
AFA	Aldundiaren erabakietan eragiteko aukera	Euskara Zerbitzurarekin harreman jarraia mantentzea, foro ezberdinetan parte hartzea, etab	Aldundiaren erabakietan eragitea > Aldundiak GEUren jardura kontuan hartzea erabakiak hartu aurretik	Arabako beste eragileekin bildu AFAn Euskara aholku batzordean eragina izateko (lobby izaera landu)
Gasteizko Udala	Euskara Elkargunea	Bi hilean behin elkartzten da, bertan parte hartzen du GEU elkarteak	Euskara Elkargunean GEU elkartearen erreferentzia izatea	Euskalgintzako eragileek aurretik gaiak lantzea
	Udalaren erabakietan eragiteko gaitasuna	Teknikariekin harremana dago, politikariekin gutxiago	Udalan ahal den neurrian eragitea, egiten dugunaren berri ematea, etab.	Urteroko plangintza aurkeztea
	Hitzarmena	Azken urteetan hitzarmena bera izan da, 73000€ko hitzarmena	Mantendu edo handitu	Urtero EBPNa betetzea % 5 igoera
	Euskara Zerbitzuko teknikariekin harremana	Konfiantza harreman estua	Euskara Zerbitzurarekin harreman jarraia mantentzea, foro ezberdinetan parte hartzea, etab.	berdin jarraitu

d. ZEHARLERROAK

IV. KOMUNIKAZIOA

Egiten den oro komunikatu behar da. Barne zein kanpo komunikazio ezinbestekoak dira edozein esparrutan, are gehiago elkartegintzan eta euskalgintzan. Komunikazio estrategiak garatzea aurreko Plan Estrategikoan puntu garrantzitsuenetakoa zen. Helburu horrekin, 2015. urtean Komunikazio Plana egin zen, baina behar bezala garatzeko aukera gutxi egon zen. Gai honi berriro heltzea eta komunikazio ekintzak sistematizatzea da egun helburua.

Era berean, GEU elkarte Gasteizko euskaldunen erreferente bilakatzea izan zen Plan Estrategikoaren kanpora begirako ardatzean lehentasuna. Aurrera pausuak eman badira ere hurrengo urteetan erronka nagusietako bat izaten jarraituko du. Hiriko euskaldun askok oraindik ez du elkarte ezagutzen, eta asko dira Mintzalaguna bezalako egitasmo zehatz batean parte hartu eta GEU elkarteak kudeatzen duela ez dakitenak.

	LAN ILDOA	EGUNGO EGOERA	HELBURUA	ADIERAZLEA
Marka	Marka indartzea	Markaren disoziazioa tresna ezberdinetan	GEU elkarteak kudeatzen dituen egitasmoak GEUrekin lotzea	GEU elkartearen proiektu guztietan GEU marka agertzea
	GEUkide izaera sustatzea	GEUkide izaerarik ez dute elkarteko bazkideek	GEU elkarteko bazkideek talde izaera indartsua izatea	Bazkide aktiboen % handitzea
Barne Komunikazioa *	Bazkideekin bi norantzako komunikazio egokia izatea	Bazkide batzuekin harremana estua, beste batzuekin harremanik ez	Bazkideekiko komunikazioa areagotu, komunikazio tresna berriak erabiliz	Bazkideen datu basea osatzea
Kanpo komunikazioa	Pertsona erreferenteak izan kanpo komunikazioa garatzeko	Hedabideekin harremana edota kanpo komunikazio ekintzak lantaldearen eta Zuzendaritza Batzordeko kideen artean banatu ohi da	Elkarteak garatzen dituen proiektu eta egitasmoen berri eman, hedabideei, webgunea, sare sozialen bidez, etab.	Bozeramailea egotea
	Iritzi sortaileak sortu, elikatu	GEUko kide batzuk iritzi zutabeak idatzi ohi dituzte baina gehienetan maila pertsonalean	GEU elkartearen izenean iritzia ematea	Iritzi artikulua, GEUren inguruko berriak
	Hedabideekin harremana	Kazetari batzuekin harremana dugu, baina informala. Radio Vitoriarekin (EITB) AleaFM saioa egiteko hitzarmena	Erdaldunei euskal munduaren eta GEUren berri eman	Hedabideetako ordezkariekin hartu emana izatea
Komunikazio Plana	Komunikazio plana eguneratu eta garatu	2015 urte amaieran plana amaitu eta 2016 bertan aipatzen diren ekintza zehatz batzuk abian jarri ziren	Komunikazioa plana garatu eta abian jartzea	Komunikazio planaren ekintzak garatzea

V. ADMINISTRAZIOA

Etengabeko hobekuntza beharrezkoa da administrazio arloan, eta hori lortze aldera GEUko koordinatzaileak 'Kudeaketa aurreratua' izeneko ikastaroa egin zuen 2016 urtean. Gainera, 2017 urtean kanpo ikuskaritza amaituko da, eta orduan jakingo da benetan zein den elkartearen egoera ekonomikoa.

	LAN ILDOA	EGUNGO EGOERA	HELBURUA	ADIERAZLEA
Barne antolaketa	Lantaldearen antolamendua	Bileren maiztasun zehatza (astero), barne kudeaketarako tresna berriak jarri dira abian (dropbox, drive...)	Lantaldearen koordinazioa, elkarlana eta parte hartzea indartzea	Antolaketarako tresnen eguneraketa eta hobekuntza jarraia
	Lantaldearen arduren plangintza	Urteko plangintza osatzen da, baina ez da jarraipen zehatzik edota eguneraketarik egiten	Antolaketa standarizatu	Plagintza eta antolaketarako ereduak sortu (dokumentu estandarizatuak)
	Lan prebentzio plana	Lan prebentzio plana osatzeko informazioa bilatu, eskatu eta jaso	Lan prebentzio plana eguneratuta izatea	Lan prebentzio plana izatea
Kontabilitatea	Elkartearen kontabilitatea, aurre kontuak prestatzea, aholkularitzarekin harremana, etab.	Aholkularitza aldatu da eta kontabilitatearen kontrola hobetze bidean doa.	Barne kontabilitatea eta aholkularitzaren kontabilitatearen metodologiak bateratu modu eraginkorrago batean kudeatzeko.	Kontabilitatea formal eta fidelago bat lantzen aurrerapausuak ematea
	Ikuskaritza	Ikuskaritza ekonomikoarekin hasi gara 2016an.	Ikuskaritza amaitu GEU elkartearen egoera ekonomiko zehatza zein den jakitea	Ikuskaritzaren emaitza positiboa izatea
			Elkartearen egoera ekonomiko zehatza ezagutu eta prozedurak egokitu	Ikuskaritzak egindako iradokizun eta hobekuntza proposamenen %50 txertatzea

VI. FINANTZIAZIOA

Azken lau urteetan etekinekin amaitu du urtea GEU elkarteak eta horrek egoera ekonomiko egonkortzea ahalbidetu du. Finantziario propioa areagotu eta egonkortu da, hein handi batean, txosnaren diru sarreraren eraginez. Gainera, 2015 urtean aurreikusi ez ziren zerbitzuen salmentagatik diru sarrerak nabarmen igo ziren.

Horrela, auto-finantziarioa handitzea edo behintzat mantentzea ezinbestekoa da, egungo proiektuez gain, bestelako egitasmo berriak egiteko edota egiten diren horietan hobekuntzak sartu ahal izateko.

	LAN ILDOA	EGUNGO EGOERA	HELBURUA	ADIERAZLEA
Finantzio publikoa (hitzarmenak, diru laguntzak, lehiaketak...)	Gasteizko Udala	Gasteizko Udala > urteroko hitzarmena eta 2016 urtean IKT deialdia eta Gogoeta prozesua modu puntualean	Hitzarmena hobetzea, diru laguntzen eskaera egokia egitea eta diru laguntza berriak aztertzea	Hitzarmena proiektuen arabera handitzen jarraitzea.
	Arabako Foru Aldundia	Arabako Foru Aldundia > Igandeak Jai egitasmorako diru-laguntza eta 2017an eskatu da modu puntualean GEU elkartearen 25. urteurrenarako. Hezitzaileen formazioa egiteko kontratazioa.	Diru laguntzen eskaera egokia egitea eta diru laguntza berriak aztertzea. Hezitzaileen formazioaren inguruko saioen finantziarioa bermatu.	Arabako Foru Aldunditik jasotzen den finantziarioa handitzea.
	Eusko Jauriaritza	Eusko Jauriaritza > Hedabideak deialdia, Irakurle kluba, Igandeak Jai, Ikus-entzunezkoak (IKT deialdia modu puntualean). Hezitzaileen formazioa lehiaketa bidez.	Diru laguntzen eskaera egokia egitea eta diru laguntza berriak aztertzea.	Eusko Jauriaritzatik jasotzen den finantziarioa handitzea.
	Finantziario bide berriak	Diru laguntza berriak bilatzea	Estatuan edota Europar Batasunean dauden dirulaguntzak eskatzea baloratzea	Estatuko edota Europar Batasuneko dirulaguntzak eskatzea baloratzea
Baliabide propioak (autofinantziarioa)	Bazkideen kuotak Zerbitzuak eta babesgotza	Aurrekontu osoaren %61,24 baliabide propioen bidez finantzatzen da	Baliabide propioak handitzea	Aurrekontu osoaren %65 izatea